



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUA USTIATZEN DUTEN ENPRESEK TOKIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

2012

1. artikulua. Xedapen orokorrak.

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauarekin bat, telefonia mugikorreko zerbitzuak eman edo ustiatzen dituzten enpresen aldetik, bide publikoen lurzoru, lurrazpi edo hegalpearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatik prezioa ezarri eta eskatzen du.

2. artikulua. Zergapeko egitatea.

Zergapeko egitatea da: telefonia mugikorreko zerbitzuak eman edo ustiatzen dituzten enpresen aldetik, bide publikoen lurzoru, lurrazpi edo hegalpearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia, eragina auzokide guztiek edo zati handi batek jasaten badu.

Zerbitzu-sareak ostatatzeke, noizbehinka zein aldizka Udalak beren beregi destinatu nahiz gaitutako azpiegituren erabilera lagatzearen ondorioz sor daitezkeen zenbatekoak edo/eta tarifak eta Ordenantza honetan araututako tasa bateragarriak dira.

3. artikulua- Zergapekoak.

Ordenantza honetan araututako tasaren zergapeko dira, auzotar oro nahiz gehienak ukituz, telefonia mugikorreko zerbitzuak eman nahiz ustiatzen dituzten enpresak. Bide publikoaren lurzoru, zorupea nahiz airea aprobetxatu beharra duten zerbitzu guztiak edota harekin zerikusia dutenak udal mugartearen barruan ematen direla ulertuko da, nahiz eta zenbatekoa beste udalerrri batean ordaindu.

4. artikulua. Erantzuleak.

1.- Zordun nagusiaren zerga-betebeharrei solidarioki erantzungo diete Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 41. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoek.

2.-Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikulua aipatzen dituen pertsona nahiz erakundeak izango dira ordezko erantzule, aipatu artikuluan aipatzen diren kasuetan eta irismenarekin.

5. artikulua. Zenbatekoa.

Telefonia mugikorreko enpresa ustiatzaileetarako zerga-kuota telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituen enpresari dagozkion Amorebieta-Etxanoko udal mugartearen helbidea duten bezero kopurua bider estatu osoan telefonia mugikorreko eragiketengatik bezero bakoitzeko batezbesteko diru-sarreraren 100eko 1,5 izango da.

Aurreko atalean ezarritakoaren ondoretarako, telefonia mugikorreko eragiketengatik bezero bakoitzeko batez besteko diru-sarreratzat joko dira komunikazio higikorren operadoreen eragiketengatik Estatu osoko diru-sarrerari dagokien zifra zati aipatu komunikazio higikorren gutzirako bezero kopurua, ekitaldi bakoitzerako Telekomunikazioen Merkatu Batzordearen Txostenak emandako datuetan oinarriturik.

Honakoa izango da kalkulatzeko formula:

$$QT = \text{enpresak udalerrian duen bezero-kopurua} \times (\%1,5 \times \text{IMO})$$

Esanahiak:

$$QT = \text{Zerga kuota.}$$

Udalerriko enpresaren bezero kopuruaren barruan daude udalerrian helbidea duten telefonia mugikorreko zerbitzuak ustiatzen dituen enpresako bezeroak, hala aurreordainketakoak nola kontratukoak.

IMO = Telefonia mugikorreko bezero bakoitzeko batez besteko diru-sarrera, komunikazio higikorren operadoreen eragiketengatik Estatu osoko diru-sarrerari dagokien zifra zati aipatu komunikazio higikorren gutzirako bezero-kopurua, ekitaldi bakoitzerako Telekomunikazioen Merkatu Batzordearen Txostenak emandako datuetan oinarriturik.

IMO = IOM/komunikazio higikorren estatu osoko gutzirako bezero-kopurua.

IOM = Komunikazio higikorretako operadoreen estatu osoko diru-sarrerak.

6. artikulua. Sortzapena.

Tasa ordaindu beharra erabilera pribatiboa nahiz aprobetxamendu berezia egiten hasten denean sortzen da.

7. artikulua. Aitorpena eta sarrera.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Enpresa ustiatzaileek urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehenago, aurre-aurreko ekitaldiari dagokion autolikidazioa aurkeztuko dute Udalean.

Aipatu enpresek autolikidazioarekin batera aurkeztu beharreko kopurua xedeko ekitaldian zergadunak kontura egindako ordainketen zenbatekoan zerga-kuota murriztearen emaitza izango da.

Kontura egindako ordainketak tasaren kuotaren zenbatekoa gainduko balute, gehiegizko zenbatekoa autolikidazioa aurkeztu ostean kontura egin beharreko lehenengo ordainketarekin konpentsatuko da.

8. artikulua. Kontura egindako ordainketak.

Komunikazio higikorretako zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresa zergadunek hiru hilean behin autolikidatu beharko dute tasa Udalean, bai eta autolikidazioarekin batera, tasaren kontura egindako ordainketa gisa, Ordenantzaren 5. artikuluan ezarritako formula aplikatuz ateratako kopuruaren laurdena ere, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak urteko argitaratuko azken txostenean agertzen diren datuetan oinarriturik.

Kontura egindako ordainketen autolikidazioa eta sarrera hiruhilekoa amaitu eta hurrengo hileko azken hamar egunetan egingo da.

9. artikulua.- Lege-hausteak eta zehapenak.

Tributu urratzeen kalifikazioaren arloan eta urratzeei dagozkien zehapenenean Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Orotariko Ordenantza Fiskalean ezarritakoa betearaziko da.

Ordenantza hau "Bizkaiako Aldizkari Ofizialean" behin betiko gisa argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko du berau aldatu edo indargabetzea erabaki arte. (BAO. 253. zk. 2007, abenduak. Astelehena; Okerren zuzenketa BAO. 11. zk. 2008, urtarrilak 16. Asteazkena).